



# -LAN BERRI- ZEHARKAKAKO GAITASUNAK

## LANA BILATZEKO TRESNAK ETA ESTRATEGIAK

### I.-GAITASUN PERTSONALAK

### II.-HARREMANEI LOTUTAKO GAITASUNAK

### III.-ANTOLAKETA-GAITASUNAK

- Honako hauei dago zuzenduta: 45 urtetik gorakoak, iraupen luzeko langabeak edo bazterkeria-egoeran daudenak, eta honako udalerrietako batean bizi direnak: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibar.
- Iraupena: 60 ordu taldeka  
Banakako ordu 1 parte-hartzaile bakoitzeko
- **Egunak: maiatzaren 7tik 25era**
- **Ordutegia:** taldeko saioa 09:30etik 13:30era

### IKASTAROAREN HELBURUAK.-

Lan-arloan eta eremu pertsonalean aplikatzen diren jarrerak, ezagutzak, gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea eta garatzea, laneratzea lortu ahal izateko.

#### **Berriazko helburuak**

#### **GAITASUN PERTSONALAK**

- Parte-hartzaileen autoezagutza hobetzea.
- Pertsonen motibazioa eta beren buruak motibatzeke duten gaitasuna identifikatzea eta bultzatzea.
- Enplegua bilatzerakoan autoestimua eta segurtasun pertsonala handitzea.
- Ikasleek modu autonomo eta arduratsuan ikasi eta lan egin dezaten sustatzea.
- Bilaketa jarrera aktiboa eta errealista sortzea irtenbide profesionalak bilatzeko orduan.
- Gaur egun bizi duten egoeran egoteko duten erantzukizun-mailari buruzko autoazterketa garatzea eta erraztea.
- Eraginaren eremua identifikatzen eta lantzen ikastea.
- Aurreiritzi eta pentsamendu automugatzaileak deseraikitzea.



## **HARREMANEI LOTUTAKO GAITASUNAK**

- Hausnarketa eta autoezagutza sustatzea, parte-hartzaile bakoitzak bere indarguneak eta ahultasunak hauteman ditzan.
- Kontzientziatzea, helburuak lortzeko gure jarrera zein garrantzitsua den jakin dezaten.
- Empatia bultzatzen eta kudeatzen ikastea, harremanak hobetzeko tresna gisa.
- Egoerei/Gatazkei aurre egiteko estrategia ezberdinak jakitea eta eskuratzea.
- Eguneroko egoerei aurre egiteko eta komunikatzeko zenbait gaitasun eta estrategia eskuratzea: gizartekoak eta lanekoak.
- Komunikazio- eta negoziazio-gaitasunak eskuratzea eta garatzea.
- Pertsonen arteko desberdintasunak modu positiboan identifikatzen, interpretatzen eta aprobeztatzen ikastea, ikasteko eta hobetzeko aukera gisa.

## **ANTOLAKETA-GAITASUNAK**

- Ikasleei antolaketa-gaitasun ezberdinak eta horiek antolaketan indartzeko metodoak jakinaraztea, bai eta horiek garatzea ere.
- Berrikuntza hobetzeko eta garatzeko sormen-gaitasuna identifikatzea eta sustatzea.
- Lidergorako gure gaitasuna ezagutzea eta sustatzea.
- Aldaketa modu positiboan kudeatzen ikastea.
- Eguneroko bizitzan malgutasuna, berrikuntza eta sormena orokortzea eta gehitzea.
- Denbora modu eraginkor eta erabakitzailean kudeatzen ikastea.